balmaseda
AyuntamientoUdala

**13. KONTROLIK GABEKO GANADUA BILTZEKO ZERBITZU PUBLIKOAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.**

1. Konstituzioaren 133.2 eta 142 artikuluek, Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106 artikuluak eta Toki Ogasunak arautzen dituen 1989ko uztailaren 4ko 5/1989 Foru Arauaren 15 artikulutik 18ra arte (urriaren 8ko 8/1998 Foru Arauaren bidez aldatua) erabakitakoari jarraiki, Tasen Legezko Araubidea aldatzeko uztailaren 13ko 25/1998 Legean erabakitakoarekin bat etorriz, hori guztia 6/1993 Legeari dagokionez, bertan inolako identifikaziorik gabe edo osasun arauak bete gabe askatasun osoz dabiltzan animaliak bildu egingo direla adierazten baita, Balmasedako Udalak kontrolik gabeko ganadua biltzeagatiko tasa ezartzea erabaki du, Ordenantza fiskal honetako aginduen arabera.

**13. ORDENANZA REGULADORA DE LAS TASAS POR LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO PÚBLICO DE RECOGIDA DE GANADO INCONTROLADO.**

1. El Ayuntamiento de Balmaseda, de acuerdo con lo dispuesto por los artículos 133.2 y 142 de la Constitución, 106 de la Ley 7/85, de 2 de Abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, y 15 a 18 de la Norma Foral 5/89, de 4 de Julio de 1989, reguladora de las Haciendas Locales y en la Norma Foral 9/1998, de 8 de Octubre, de modificación de la N.F. 5/89, en concordancia con lo dispuesto en la Ley 25/98, de 13 de Julio, de modificación del Régimen Legal de las Tasas, todo ello en relación con la Ley 6/93, donde se indica que los animales serán recogidos cuando vaguen libremente sin identificación alguna o por no cumplir las normas sanitarias, establece la Tasa por la recogida de ganado incontrolado, de conformidad con las prescripciones de la presente Ordenanza Fiscal.

**I. XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua. Zergaren xedea

1. Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera, inolako identifikaziorik gabe, edota, identifikazio ofiziala dutela, unean uneko indarreko osasun arauak bete gabe udalerrian askatasun osoz dabiltzan animaliak biltzeagatiko tasa erabaki eta eskatzen du.

**I. DISPOSICIONES GENERALES**

Artículo 1. Exigencia del Tributo

1. Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico, establece y exige las tasas por la recogida de ganado incontrolado que vague libremente por el Municipio sin identificación alguna, o bien, que portando identificación oficial, no cumpla con las normas sanitarias vigentes en cada momento.

2. artikulua. Aplikazio-eremua

1. Ordenantza Balmaseda udalerri osorako da.

Artículo 2. Ámbito de Aplicación

1. La Ordenanza se aplica en todo el ámbito territorial municipal.

**II. ZERGA EGITATEA**

**II. HECHO IMPONIBLE**

3. artikulua. Zerga egitatea

1. Inolako identifikaziorik gabe, edota identifikazio ofiziala dutela, unean uneko indarreko osasun-arauak bete gabe udalerrian askatasun osoz dabiltzan kontrolik gabeko abelburuak Udalak bildu izatea da zerga egitatea, bilketa hori egitea eskatu zaiolako, edo kontrolik gabeko abereen jarduerak edo hutsegiteek zeharka eragina izan dutelako.

Artículo 3. Hecho Imponible

1. Constituye el hecho imponible la efectiva recogida por el Ayuntamiento de las cabezas de ganado incontrolado que vague libremente por el Municipio sin identificación alguna, o bien, que portando identificación oficial, no cumpla con las normas sanitarias vigentes en cada momento, bien porque dicha recogida haya sido instada, bien porque indirectamente haya sido provocada por las acciones u omisiones de los responsables del ganado incontrolado.

**SUBJEKTU PASIBOA**

**III. SUJETO PASIVO**

4. artikulua. Subjektu pasiboa

1. Zergadun gisa, honako hauek ditugu zerga honen subjektu pasiboak: udalerrian kontrolik gabeko abereak batzeko zerbitzuaren onuradun edo kaltetuak gertatzen diren pertsona partikularrak nahiz erakundeak, Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. artikuluaren arabera,

2. Kontrolik gabeko abereak batzeagatik ezarritako tasetan zergadunaren ordezkotzat joko dira aipatzen diren abere buruen jabeak, eta horiek, hala balegokio, onuradun bakoitzari egotzi ahal izango dizkiote kuotak.

Artículo 4. Sujeto Pasivo

1. Son sujetos pasivos, en concepto de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico, que resulten beneficiadas o afectadas por el servicio de recogida de ganado incontrolado en el Municipio.

2. Tendrán la consideración de sustitutos del contribuyente, los propietarios de las cabezas de ganado reseñadas, quienes podrán repercutir, en su caso, las cuotas sobre los respectivos beneficiarios.

5. artikulua. Zergaduna

1. Beren egintzak edota hutsegiteen ondorioz, kontrolik gabeko abereak batu beharra sortu duten partikularrek ordaindu behar dituzte tasak.

Artículo 5. Obligado al pago

1. Las tasas se harán efectivas por aquellos particulares que por sus acciones u omisiones hayan motivado la recogida del ganado incontrolado.

**IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK**

6. artikulua- Salbuespenak

1. Salbuespen edo bestelako onura fiskalak aplikatzekoak diren ebazpen orokorrek ezartzen dutenarekin bat etorri behar dira.

**IV. EXENCIONES, REDUCCIONES Y BONIFICACIONES**

Artículo 6. Exenciones

1. La concesión de exenciones u otros beneficios fiscales se sujetará a lo que se establezca en las disposiciones generales de aplicación.

**V. ZERGA OINARRIA**

7. artikulua. Zerga oinarria

1. Zerga oinarria, Eranskinean bildutako moduan, kontrolik gabe ganaduaren bilketa gauzatzeko unitate bakoitzean datza.

**V. BASE IMPONIBLE**

Artículo 7. Base Imponible

1. Constituye la base imponible cada una de las unidades en que se materialice la recogida del ganado incontrolado, en los términos contenidos en el Anexo.

**VI. KUOTA**

8. artikulua. Zerga kuota

1. Onartutako tarifen aplikazioaren ondoriozko kopurua izango da zerga-kuota, Eranskinean erabakitakoarekin bat etorriz.

2. Kontrolik gabeko ganaduaren bilketak herriko jabetza publikoa hondatu edo suntsitzea eragiten badu, onuradunak, dagokion tasa ordaintzeaz gain, berreraikuntza edo konponketa gastuen kostu guztia ordaindu beharko du, eta aldez aurretik horren zenbatekoa gordailuan utzi behar du.

**VI. CUOTA**

Artículo 8. Cuota Tributaria

1. La cuota tributaria consistirá en la cantidad resultante de la aplicación conjunta de las tarifas aprobadas conforme a lo establecido en el Anexo

2. Cuando la recogida de ganado incontrolado lleve aparejada la destrucción o deterioro del dominio público local, el beneficiario, sin perjuicio del pago de la tasa a que hubiere lugar, estará obligado al reintegro del coste total de los respectivos gastos de reconstrucción o reparación y al

3. Kalteak konponezinak badira, Udalak kalte-ordaina jasoko du, suntsitutako ondasunen pareko balioa izango duena, edo bestela, kaltetutako ondasunen zenbatekoarena.
4. Udalak ezin izango ditu aurreko ataletan aipatuko kalte-ordainak eta itzulketak erabat edo zati batean barkatu.

depósito previo de su importe.
3. Si los daños fueran irreparables, el Ayuntamiento será indemnizado en cuantía igual al valor de los bienes destruidos o el importe del deterioro de los dañados.
4. El Ayuntamiento no podrá condonar total o parcialmente las indemnizaciones y reintegros a que se refieren los apartados anteriores.

**VII. SORTZAPENA ETA ZERGA ALDIA**

**VII. DEVENGO Y PERIODO IMPOSITIVO.**

9. artikulua. Sortzapena

Artículo 9. Devengo

1. Kontrolik gabeko ganaduaren bilketa egitean sortuko da tasa.

1. La tasa se devengará cuando se efectúe la recogida del ganado incontrolado.

**VIII. LIKIDAZIOAK ETA DIRU SARRERA EGITEA**

**VIII. LIQUIDACIONES E INGRESO.**

10. artikulua. Likidazioa eta diru-sarrera egitea

Artículo 10. Liquidación e ingreso

1. Udalak kontzeptu bakoitzari dagokion likidazioa egingo du, eta likidatutako diru- kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinean jasotako ordainarazpen bakoitzeko arau zehatzen arabera.

1. Por el Ayuntamiento se practicará la liquidación que proceda por cada concepto, ingresándose en metálico la cantidad liquidada, conforme a las normas particulares de cada exacción contenidas en el Anexo.

**IX. TASEN KUDEAKETA**

**IX. GESTIÓN DE LAS TASAS**

11. artikulua. Kudeaketa

Artículo 11. Gestión

1. Ordenantza honek araututako likidazio, diru-bilketa eta ikuskapenari dagokion guztian, baita zerga arloko arau-hausketen sailkapenari eta bakoitzean dagozkion zigorren ezarpenari dagokionez, Lurralde Historikoko zergei buruzko Foru Arauan ezarritakoa betearazi beharko da.

1. En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección de las Tasas reguladas por esta Ordenanza, así como la clasificación de las infracciones tributarias y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, será de aplicación lo previsto en la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico.

## X. AZKEN XEDAPENA

Azken xedapena. Indarrean sartzea

Ordenantza hau, bere Eranskinarekin batera, behin betiko onetsi da eta 2002eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta hala jarraituko du ordenantza aldatu edota indargabetu arte.

Eranskina. Tarifen taula

- Langileen gastuak: (ordu eta pertsona bakoitzeko)............................................... 12,02 €
- Joan-etorriak: ............................................................ 0,29 € / km
- Materiala (dardoak, xiringak): ............................................ 72,12 €
- Abereak mantentzeko lanak:

Abere larriak:

  - Ø 1. abelburua: (eguneko).................................................. 27,04 €
  - Ø 2. abelburua eta hurrengoak: (egun eta buruko) ............ 6,01 €

Abere xeheak:

  - Ø 1. abelburua: (eguneko).................................................. 25,54 €
  - Ø 2. abelburua eta hurrengoak: (egun eta buruko) ........... 3,00 €

## X. DISPOSICIÓN FINAL

Disposición Final. Entrada en vigor

La presente Ordenanza, con su Anexo, queda aprobada definitivamente y entrará en vigor el día 1 de Enero de 2.002 y seguirá en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación.

Anexo. Cuadro de Tarifas

- Gastos de personal:............................................... 12,02 €
- Desplazamientos: ................................................. 0,29 € / km
- Material (dardos, jeringas): .................................... 72,12 €
- Mantenimiento del ganado:

Ganado mayor:

- 1ª cabeza (por día)................................................. 27,04 €
- 2ª cabeza y siguientes (por día y cabeza)............. 6,01 €

Ganado menor:

- 1ª cabeza (por día)................................................. 25,54 €
- 2ª cabeza y siguientes (por día y cabeza)............. 3,00 €